

ARTE EDERREN FAKULTATEKO ERAKUSKETA ARETORAKO PROPOSAMENAK BIDALTZEKO DEIALDIA

NORI ZUZENDUTA?

Hurrenkera hau kontuan hartuta:

-Irakasleei, irakaskuntzako materiala edota taldean egindako lanak erakusteko.

-Ikasleei, irakaskuntzarekin lotutako gaiak lehenetsita.

-Salbuespen gisa, kanpoko agenteekin edo agenteen arteko irakaskuntza edo ikerketa trukearen ondoriozko jarduerak edo emaitzak sar daitezke baldin eta indarreko lankidetzak hitzarmenak baditugu.

-Salbuespen gisa, batzordeak erakusketa indibidualak eskatzeko aukera baloratu ahal izango du, proposamenaren interesaren arabera, betiere ikasturterako programaturako erakusketen 1/4 gainditzen ez badute.

¿COMÓ PRESENTAR UNA PROPUESTA PARA LA SALA?

Urtean bi deialdi izango dira proposamenak aurkezteko:

Udaberrian, martxoaren 31 arte.

Udazkenean, irailaren 30 arte.

Aretoa eskatzeko, informazio hau biltzen duen dokumentua bidali behar da helbide honetara: ecultural.bellasartes@ehu.eus

-Erakusketa arduradunaren eta parte hartzaileen izen-abizenak.

-Proiektuari buruzko informazio garrantzitsua; izenburua, erakusketaren ezaugarriak, piezen irudiak...

-Proposamena ulertzen laguntzen duen beste edozein informazio.

NOIZ BILTZEN DA ERAKUSKETA ARETOKO BATZORDEA?

Dekano-talde ordezkariak, departamentu guztietako ordezkariak eta ikasleen ordezkariak osatutako batzordea urtean bitan bilduko da, bata udazkenean eta bestea udaberrian.

Zalantzarik izanez gero: ecultural.bellasartes@ehu.eus

